


Neoliberalismo hiperkapitalistaren zioak albait hobekien ezagutzeko saiakera



(/begizolia) [Begizolia](#) (/begizolia) | © 2026-02-20 16:06



(https://media.blogak.eus/media/photologue/photos/cache/uranga_Sv0Z30F_display.jpg)

[Emognosia](https://www.erein.eus/liburua/emognosia/eu) (<https://www.erein.eus/liburua/emognosia/eu>)

[Mitxelko Uranga](https://eu.wikipedia.org/wiki/Mitxelko_Uranga) (https://eu.wikipedia.org/wiki/Mitxelko_Uranga)

[Erein, 2025](https://www.erein.eus/hasiera) (<https://www.erein.eus/hasiera>)

Abiaburuan

Emognosia izenburua du **Mitxelko Uranga** filosofoaren **saiakera honek**. Behin eta hasteko, izenburuaz pare bat berba. *Emognosia* saiogilearen terminoa da. Ez hiztegian begiratu, ez duzu aurkituko eta. Terminoarene funtsa

liburuan duzu. Ez dizut nik salatuko. Izan ere, eskuetan duzuna saiakera izan arren, literaturaren tasun zenbaitez osatu leundu edota arindu –nahi– izan du saiogileak. Filosofia munduari zentzu emateko jakintza dugu, nonbait. Gizakiok munduan obratzeko darabilgun moduari zentzua bilatzeko lantzen dugu filosofia. Hor nonbait hori ere.

Areago, filosofia dela medio, gure printzipioak finkatzen ditugu errealitatea ezagutu aldera, ahalik eta modu arrazionallean finkatzen saiatu ere. Arrazoia, hartara, munduaren zentzua ez ezik, munduaren ordenua edota oreka erdiesteko ahalmena dugu. *Makulu* suerte bat.

Arrazoia aipaturik, horixe bera liburu honen gakoa. Arrazoia liburuaren izenburuaren terminoaren antitesia da. Tesia *emognosia* bada, arrazoia haren aurkakoa. Sintesia bilatu behar dugu, ordea. Sintesia liburu-saiakera honetan duzu.

Saioa zazpi kapituluz osatuta dago. Egiari zor, zazpi kapitulu *Sarrera* delakoa lehen kapitulutzat hartuta. Fiordoetan nabigatzen ariko bazina legez aurkituko duzu zure burua. Nire pertzepzioaren arabera, behe-lainoa laugarren kapituluan hasten da amiñi bat saretzen. Saretu, saretu hitzak daukan adiera baten zentzuan, hots, barreiatzen.

Pazientzia ei da zientziaren ama. Filosofiarekin zilipurdikatzen garenean pazientzia hartu behar dugu, egonarriz jardun. Idazleak saiakera honen funtsa zertzeko filosofo andanaren pentsamenduaz elikatu du bere burua. Liburuko *Bibliografia* begiratzea bertzerik ez duzu. Ez naiz obraren balioa gutxiesten ari, inondik ere. Aitzitik, pentsamendua –kasuon, Mitxelko Urangarena– ez dela *ex-nihilo*-tik sortzen adierazi nahi dut. Adierazpen inozoa inondik ere.

Konturik kontu, burutapenik burutapen

Metaforarekin jarraikiz, historiaren eta liburuaren bide-ertzera

hurbilduko naiz amiñi bat. Saiogileak *emognosia* zer den argitu aldera hamaika bidaide eraman ditu berarekin fiordoan barrena. Bidaide horiek – filosofoak gehienak– batzuk gogaideak ditu eta bestetzuk ez. Hainbat unetan ez dira erraz antzematen lantzen dituen terminoak. Normala hori ere. Filosofiaren historiaren hasita –Platon buruan buru– gaur egungo filosofiara bitartean saiogileak eginiko bidaia ez da ezelakoa. Ez da erraz digeritzen, alegia. Handi-handika, zazpi korrante filosofikoek zeharkatu edo ildokatu omen dute norbanakoon ibilia. Tira, pentsamendua landu duten norbanakoez ari naiz, norbanakoen gehiengoak ez baitu pentsatzen. Gehiengoa gutxiengo baten pentsamenduaren arabera doktrinatu izan gara.

Hara, desbideratu naiz. Liburuaren ibilbidetik aldendu naiz. Tira, desbideratze hori baliatuko dut hauxe errateko. XX. mendera arte, filosofiak – modu batez edo bestez– bere tokia eta presentzia izan du irakaskuntzan, dela beheko mailan dela unibertsitatean. XXI. mendean, pentsamendua eta arrazoibidea uxatuz doaz mundutik. Liburua irakurriz gero horretaz jabetuko zara. Irakurriz gero, prefosta.

Konturik kontu, funtsik funts

Liburu bati bere funtsa antzematea bere lerroburu soilaren bitartez ez da samurra, ez duzu erraza alegia. Are gutxiago *emognosia* izenburua delakoaren bidez. Azalean ageri ez den arren, liburuak badu izenburu azpiko bat: *Egia-ostea, konspirazioa eta negazionismoa*. Hiru termino horiek ere ez dira nahiko liburuak dakarren mamiaz jabetzeko. Hain da trinkoa. Kontzeptu eta terminoz trinkotuta dago, alegia.

Liburuaren hasierako asmoaren tamainaz jabetzeko kontu bat:

saiakera benetan mamitsua da bere horretan. Alta bada, liburua Joseba Gabilondo, Eduardo Apodaka eta Mitxelko Urangak berak landutako *Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia* izenburuko lan mardularen *Egia-ostea* deritzon lehen zatia baino ez da. Alegia deus ez.

Jarraian, lagundu aldera, liburuaren matazarekin ohitzeko hainbat zertzelada

–behe-lainoa izendatzeko bertze molde bat–. *Emognosia*-z ari garenean, aro modernoan honatago ari gara. Aro hipermodernoan ari gara. Modernotasunak antigoaleko aroaren moldeak irentsi bazituen –adierazteko molde bat duzu–; egungo aro hipermodernoak erabat irentsi du aro modernoa. Konstatazio bat: *gehiegikeria* da gaur egungo norbanakoaren jaidura. Ezaugarri nagusietako bat.

Hitzeman ditugun itunen ildoan eraiki dugu gure

kontzientzia. Norbanakooz ari naiz. Adibiderako, mitoeak “lagundu” gintuzten zeregin horretan. Erlijioek ere bai, baita filosofiak ere, noski. Uranga pentsalariak *Fausto* izeneko pertsonaia ekarri du hizpidera. Metafora suerte bat. *Deabrua* tartean dela, jakina. Metaforaren arabera betiere, Jainkoaren aurka edo haren predestinazioekin bat egin ezinean, deabruarekin paktatu ohi dugu. Hara, aro hipermoderno honetan ere, paktu edo itunen menpe bizi gara. Paktu batek arau bizi gara egungo norbanakook? Zeinekin egina? Bada, hiperkapitalismo liberalarekin.

Termino eta kontzeptu anitz daude paktu horretan: barbarako, *errealitatea multidimentsional* batean bizi behar izatea. Egungo munduan ziurgabetasuna eta egonezina areagotu dira. Nik emanikoak zertzelada zatar batzuk bertzerik ez dituzu. Premisa bat: fiordoan barrena jarraitzeko, behe-lainoa aldenarazteko, bertze zertzelada zenbait aurkituko duzu, brotxa lodiz emanak.

Egia-ostea

Egiarik inoiz izan bada, egiaren osteko giza-aroaren ondoren, egiarik ez dago jagoitik. Egia-ostearen aroa da egungoa. Atal honetan egia zen den ulertzen laguntzen gaitu saiogileak. Zer da egia, egiazki baina? Nork bere egia omen du. Beraz mila milioi egia al daude? Sinplifikatu aldera –egilearen

ildoan– egia errealitatearekin bat egiten duena da. Errealitatea baina ez da finkoa, ezta? Baldin adierazten duguna errealitatearekin bat baldin badator, egia da dioguna. Bestela gezurra. Ufa.

Mataza gehiago korapilatu barik, termino batzuk gehiago aipatuko ditut jarraian: egia zer den ebazteko unean fedea munta handi dauka. Atal hau duzu horren lekuko. Izendatuko ditut terminoak: *Erronka*. Errora jotzeko beharra. *Iruzurra*. Gizabanakoon *zurra* jiteak determinatzen du *iruzurra*. *Gezurra*. *Zurra* ageri da gezurra terminoan. Faltsua, nonbait. *Zuhurra* berriz ere: gizaki *zuhurra*, *zurra* duzu, nonbait. *Errua* agertu da. Atx!

Horratx errua, gure kontzientziaren astintzailea. Gizakiok *errudunak* gara sortzez –gu geu kultura judo-kristauaren seme-alabak izaki–. *Erlatibismoa*. Erlatibizatzeko beharra dugu, biziko bagara. *Errealta* eta *ismoa*. *Errealatibismoa*. Saiogilearen terminoa duzu. Esanguratsua.

Mefistofeles

Kapitulu hau luzeena eta mardulena duzu. *Mefistofeles* deabruaren pertsonifikazioa da. Aurreratu dizut daborduko. Goetheren *Fausto* pertsonaiaren istorioan azaltzen da. Fikziozkoa, beraz. Mitxelko Urangak, filosofoa izanagatik, errealitatea behatzen du, alabaina, fikzioaren errekreazioen bitartez lagundu nahi edota behar izan du bere saioa.

Hitz termino edota kontzeptu anitz landu ditu –desmaskaratu nahi izan du, molde literarioan erranez–. *Pathegnosia* terminoa aletu du *Mefistofeles* pertsonaiaren izatearen inguruan. *Post-truth* edo *egia-ostearen* egia alternatiboak “jalgi” dira gure mundura. Egia horien aldeko diskurtsoak darabiltzatenak ez dira ironikoak, ez erlatibistak, metafisikoak baizik. Egia absolutuen aldeko diskurtsoak dituzu eurenak. Beraiek egia-osteak egia guztiak baliogabetu dituela diote. Hori diotenak, ordea, beren egiak egiazat hartzen dituzte.

Hedonismoa da berebiziko terminoa gure garaia ulertzeko. Noski, terminoa ontsa entelegatzeko funtsekoa da geure burua desmaskaratzea. Badago termino sano esanguratsua saiakera honetan guztian eta da: *mihiztadura*. Mihiztadura, hots, gizakiok bizi garen garaira iritsi gara *akoplamendu polizefalikoa* dela medio. Sigmund Freud duzu dagoeneko bidaide –bertze hainbat pentsalarirekin batera–, Mitxelko Urangaren iturri fidagarria, antza. Terminoaren bitartez, nolabait erranik, neoliberalismo hiperkapitalistaren arrastoan eramaten gaitu, irakurleok alegia.

Honatx ideia klabeetako bat: neoliberalismoak emozioetan ikusi du ekoizpena eta errendimendua handitzeko modua. Hori lortzeko norbanakoen askatasunaren ustiapenez baliatzen ari da. Emozioak emozio, saiogileak atal honetan behe-lainoa uxatu du apur bat gehiago. *Gnoseopatetismoa*-z dihardu. *Gnosis* eta *pathetikós* hitzak uztartu ditu, *emognosia* terminoa ia-ia desmaskaratuz.

Kapitulu mardul hau ulertu aldera, honatx termino gehiago: *Zientzia(gintza)*. Nietzsche hizpide du Urangak. Pentsalari berebizikoa saiogilearen jardunean. Filosofo prusiarrak zientzia ulertu eta jorratzeko modua oso aintzat hartzen du pentsalari bizkaitarrak. Errate baterako, zientzia egokiro ulertu dezagun, *zir(kuns)tentzia* landu du Urangak. Hitz asmatuak dituzu. Hitz jokoaren bitartez, liluratu edota zoratuko zaitu. Pentsamendua biziarazteko filosofiaz izan ez ezik, filologiaz baliatzen da.

Zientzia ez da ulertzerik gailenduz doan (sasi)zientzia aztertu barik. Are gutxiago *Tekno(zientzia)* delakoaren ezarpena aintzat hartu gabe. Adimen artifizialaren aroaren hastapenean gaude. Dualismo ontologiko berri baten aitzinean. Digitalizazioak eta algoritmoek gizakion sentiberatasuna ukitu ez ezik, gure zuntza emozionala urratu digute. *Google* ezagutzen duzu, ezta? *Berbontzikeria* terminoa ulertzea gakoa da, egia-ostearen funtsa ulertuko baduzu. Badugu. *Berbontzikeria* termino berebizikoa da duzu dugu gaur egun.

Kontzeptu horiek hobeto ilustratu aldera, tekno(berbontzikeria) politikoa terminoa sortu du saiogileak. Miraria (*m(ir)ag(arri)ia*), Magia (*m(ae)gia*), Heziketa (*he(mo)ziketa*) eta Ilustrazioa (*Ilun)strazioa* berbak sano adierazgarriak dituzu *emognosia* zer den argitu bidean. Guri irakurleoi, ilustrazio aroaren argitasunean azaldutako *ilunguneak* ulertzea dagokigu.

Konspiranoia

Susmoa dut, *susmoa* terminoa ote den gizabanakoen jardunean gailentzen den jaidura. *Susmoa* –nik honela interpretatu dut– boterearen eta ikusezintasunaren artean dago. Bestera erranik, boterea eta ikusezintasuna lotuta daude. Gure imajinarioan lotuta batez ere. Susmoek elikatzen gaituzte, gure izatea (kon)formatuz. Pentsalariak pentsalari, gizarte mugimenduak ere aztertu ditu saiogileak. (QA)Non mugimendua duzu horietako bat.

Susmoak susmo, *Clintontarrak* eta *Obamatarrak* tarteko *celebrity*-ak eta gidari izpiritualak ezagutzeko parada izan dugu. Aberatsak, prefosta. Izpiritu gidari modernoak, (post)modernoak dira. *Konspiratzea* eta *zin egitea (jurar)* elkarren ondoan paratu ditu Urangak: *Kon(spi/ju)ratzea* terminoa sortuz. Konspirazioa, konplota eta konjura, bat-bedera ipini ditu. Kasu, ez dira sinonimoak. Kontuan hartu hau ere: *Konspirazionista* eta *konspiranoikoa* ez da subjektu bera. Egungo gizakion jite paranoikoa begi-bistara ekarri digu saiogileak.

P(I)andemia. Izan al zen azkeneko pandemiaren zabalpen lurtarrean ezkutuko planik? Berez heldu ote zen? Edo eliteek diseinatua izan al zen? Mitxelko Urangak, konspirazioa terminoa aletuz, bere ikuspegia eman digu.

Negazionismoa. Hitz fetitxea. Mantra bat. Horrelakoa ote? Gomendioa: diskurtso erlatibistaren hedapena aintzat hartu behar dugu. Alabaina – saiogilearen ildoan betiere– negazionismoa eta erlatibismo ontologikoa ezin ditugu zaku berean sartu, edo ez dira osagarriak, ez guztiz bederen. Bere ustez,

elkar baliogabetzen dute. Zirt eta zart ebatzi du berak: negazionismoak ez dauka erlatibismoarekin zer ikusirik. Kito! Sigmund Freud azaltzen zaigu bidean berriz ere. Gogaide ote dugun? Zuk baloratu, irakurle horrek.

Freudek 1925ean publikatu zuen *Verneinung* testua aztertu du Urangak. *Ukazio*az ari zaigu. Ereku labainkorra ez ezik, arras trinkoa dugu. Geure neurosiaz ari zaigu Mitxelko Uranga, norbanakoon neurosiaz dihardu. *Nia eta bere zera-z.* Psikosia. Arranopola. Antza denez, neurosiak izaera soziala hartu zuen aspaldian. Heldu iezaiozu. Den-dena arras konprenitu barik ere, beti ikasten da. Ez gutxi, alajaina.

Bidean bide, terminoz termino ari gara. *Ukazioa* aipatu dugu, *zioa* delakoa darama bere baitan: *Uka(zioa)*. *Ukazio* arrazionalaz ari zaigu. Beste estutu bat ematen dio testuari, negazionismoa ulertze bidean. *P(l)andemia I* ez ezik, *p(l)andemia II* testua dakarkigu. *Zaratrustaren* bidean *eskalearen* bertsio hipermodernoa zer den azaldu digu: azken aldiko mugimendu negazionista eta konspiranoikoan omen dagoen *eskale* moduko hori. *Eskale* moduko horren jaidura ezagutu nahi? Segi bada! Aitzina!

Eszeptizismoa/perspektiba

Azken kapitulura arribatu al zara? Ez liburuarenera. Ez. Iruzkin honen azken atalera, alegia. Hizkuntza *lantzean* datza ahalegina. Eta lantzean, *(Za)lantzean* –nabigatzea– datza jarduna. Erlatibismoa eta errealismoa hizpide, saiogilearen ustez, batak besteari aitziz egiten dio. Ez da samurra gaiaren lanketa. Errealitatearen *perspektiba* hartzeko baina, lagungarria duzu oso.

Zein da helburua? *Emognosia*-rekin akabatzea. Zeregin horretan eszeptizismoa dugu ebatzi beharreko terminoa. “Ezer ez da gehiago berdin” edota “denak balio du” bezalako mantrak baliagarriak al dira? Edo nahasgarriak ote? Zuk erabaki. *Mefistofeles* ezagutu dugu bidean bide.

Bidaidea. Gogaidea ote?

Ikasbidean azken urrats moduko hauxe eman dugu: neoliberalismo hiperkapitalista fenomeno arrunt errealia dugu. Fenomenoa desmaskaratzeko, *emognosia* delakoa ezagutzea komenigarria zaigu hagitx. Neoliberalismo hiperkapitalistaren zioak al bait hobekien ezagutzeko saiakera da duzu dugu *Emognosia*. Saiakera trinkoa, haatik. Terminoz eta kontzeptuez arrunt trinkotua. Inork erran al du bizitza esperientzia trinko eta konplexu ez denik?

Datsegit  (/users/login/?next=/begizolia/neoliberalismo-hiperkapitalistaren-zioak-al-bait-hobekien-ezagutzeko-saiakera)

Iruzkinak

Utzi iruzkina:

Erabiltzaile izena

Eposta

Captcha

No soy un robot

reCAPTCHA
Privacidad - Términos

Bidali

Developed by [CodeSyntax](https://www.codesyntax.com) (<https://www.codesyntax.com>). Software: [Bitakora](/about#bitakora) (</about#bitakora>) that is based on [Django](https://www.djangoproject.com/) (<https://www.djangoproject.com/>) framework.



[\(/about#license\)](/about#license)